

## Unai Agirre

Donostia, 1973. Gipuzkoako Errausketaren Kontrako Herri Plataformen Koordinadorakoa da. Hondakinen Legea aurrera ateratzeko lanean ari dira premisa nagusi batekin: “Zaborrarena guztion arazoa da, eta herritarren konpromisoa eta lana eskatzen du”.

# “Denbora kontra dugu, Administrazioak ondo daki”

URKO APAOLAZA

Argazkiak: Dani Blanco

ZUBIETAKO Alamandegia etxea errausketaren kontra daudenen zentro neuralgiko bihurtu da, han egiten ditu bilerak Gipuzkoako Errausketaren Kontrako Herri Plataformen Koordinadorak. “Orokorrean 12-14 herriren ordezkariak biltzen da hemen” dio Unai Agirre zubietarrak, koordinadora horretako bozeramaleak. Karpeta, foileto eta afixen artean erantzun die ARGIAren galderei.

Koordinadoraren ibilbidea laburra bezain bizia izan da. 2003an eman zituen lehen pausoak, Urnietan erraustegia jartzeko asmoa ezagutu zenean. Gero, kokapen hori dantzan ibili da eta horregatik dio Agirrek, herriak joan herriak etorri, “Gipuzkoa erdia” pasatu dela koordinadoratik.

Azkenean, erraustegia Zubietan eraikiko zela erabaki zen behinbetiko, ez ote du horrek beste he-

rrietako jendea desmobilizatu? “Zenbait herritan nabaritu da desmobilizazio hori, baina beste herri batzuetan alderantzizkoa gertatu da. Orain indar askorekin gaude berriz, eta gure dinamika beste erronka batek jan du: Lege proposamenak”.

**Zer da, zehazki, Lege proposamenak dioena?**

Gaur egun hutsune legal handia dago zaborren gaiarekin. Legerik ez dagoen bitartean, administrazio bakoitza okurrizten zaiona egiten ari da, batean erraustea, bestean zabortegia... Guk nahi duguna da ikuspegi homogenea izatea EAE guztiarentzako, eta ikuspegi hori da zaborra gutxitzeara. Lege honek argi eta garbi esaten du zaborrik ez dela erraustuko eta horren ordez gaikako bilketa intentsiboa planteatzen du.

(...)

Horrek esan nahi du materia organikoa eta birziklatu daitekeen guztia biltzea. Sistemak badaude, atez atekoa, adibidez.

**Hondakinen Lege proposamena aurkezteko behar diren 30.000 sinaduratatik 20.000 baino gehiago bildu dituzue jadanik. Zuen aurreikuspenak bete dira?**

Jende aldetik bai. Sinadura bakoitzak 3 minutu behar izaten ditu eta batzuetan gu ere urduri jartzen gara jendea ilaran zain ikusten dugulako. Alde horretatik jendeak animoak eman dizkigu. Ez genuen uste, inolaz ere, bilketa hain poliki joango zenik, konturatu gara 30.000 sinadura biltzea izugarriko lana dela.

**Azken hogeitertan horrelako herri ekimen legegile gutxik egin dute**

aurrera. Agian hori bada horrek duen zailtasunaren erakusgarri.

Ekimenak oso zabala izan behar du ongi ateratzeko eta horretarako diru asko behar da, bai komunikabideetan propaganda jartzeko eta beste edozertarako. Momentu honetan desplazamenduak eta horrelakoak gure poltsikotik ordaintzen ditugu.

**30.000 sinadura biltzeaz gain, ikusten ez diren tramite gehiago egongo dira atzean, ezta?**

Bai. Lehenengo Lege proposamena egin behar da. Hasi eta ez genuen bukatzen, hilabeteak pasa genituen horri bueltak ematen. Gero talde eragile bat sortu behar da, Eusko Legebiltzarreko mahaian aurkeztu, hauteskunde batzordeari eman, aurrekari penalik ez dugula egiazta-tu, sinadurak errebisatzeko federe-maila egin... Sinaduretara iritsi arte sekulako lana zegoen.

**Eta orduan, beste aukera batzuk egonda, zergatik erabaki zenuten Legea aurkezteko bide hori?**

Aukera bazegoen alderdi politikoren batek Lege proposamena aurkezteko, baina batek aurkezten duenean beste alderdiak ez du onartzen. Guk nahi genuen gure proposamena izatea; atzean 30.000 sinadura edukitzea babes handia da edozein aldarrikapen egiteko.

**Katalunian, atez ateko bilketaren aldekoek esan izan dute, "politikak-keria" albo batera utzi behar dela horrelako kontuetan...**

Katalunian udalerrriak izan dira gaia aurrera eraman dutenak eta ez



**"Ezin dugu pentsatu Administrazioak konponduko duenik zaborren arazoa, baliabideak jar ditzake, baina herritarren lana izango da hori, sinadurak biltzea bezala."**

alderdi konkretuak, hori oso inportantea da. Han izan ginenean ikusi genuen oso ondo egin zutela hori, borroka politikoetatik kanpo zegoen zaborraren gaia.

**Sinadura guztiak biltzeko luzapena eskatu duzue. Zer arrazoi eman duzue horretarako?**

Tartean hauteskunde kanpaina izan da eta denak buru-belarri sartu dira komunikabideetan, zailtasun handia izan dugu propaganda jartzeko eta gure berri emateko. Eta bestalde, txorakeria bat dirudi, baina sekulako eguraldi txarra egin du, inoiz baino gehiago busti gara.

**Norbaitek pentsa dezake luzapena eskatzea babes faltaren sintoma dela...**

Pentsa dezake, baina luzapena onartu badigute benetako zailtasunak izan ditugulako izan da.

**Aipatu dituzun zailtasun horieie aurre egiteko zeinen babesa izan duzue? Nola antolatu duzue bilketa?**

Oso eskertzekoa izan da sindikatu gehienek babesa, benetan saiatu dira sinadurak biltzeko lanean, delegatuen bidez eta abar. Errausketaren kontrako plataformak ere egon dira herrietan sinadurak biltzen, unibertsitateetan ere izan gara...

**Esan liteke auzoz auzoko bilketa egin duzuela, Hondakinen Legearen filosofiari berari jarraituz; herritarren parte-hartze eta ardurarena, alegia.**

Badago premisa bat inoiz ahaztu behar ez dena: zaborraren kontua



# TALLERES MITXELENA

S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000  
Fresadora: 10.000 x 3.500  
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S. Coop.  
Eziago Poligonoa • Zkuffaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)  
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

[www.talleresmitxelena.com](http://www.talleresmitxelena.com)

## Atez ateko sistema: %76,08 birziklatzen du Usurbilek

Usurbilen zaborra bananduta biltzeko atez ateko sistema martxan da jadanik eta arrakasta izan du: birziklapen tasa %28,42tik %76,05era pasa da eta gertu daude hasierako %80ko helburua iristeko. Gainera, zabor organikoaren kalitate ona nabarmendu dute udal agintariek (%98ko purutasuna).

Unai Agirre Gipuzkoako errausketaren kontrako koordinadorako bozeramalearentzat "gaikako bilke-

ta intentsiboa lortzeko sistemarik onena atez atekoa da. Esperientziak esaten du bosgarren edukiontziaekin (organikoak biltzeko Gipuzkoako Diputazioak sustatua) bildutako zabor organikoa erdira jaisten dela eta konpostaren kalitatean ere arazoak daudela".

### Herri bakoitzera egokitu

Gipuzkoako beste zenbait herri ere atez ateko bilketarekin hastekoak

dira. Agirreren iritziz, sistemak mol-dagarria izan behar du: "Ez da berdina Katalunian edo Usurbilen egiten dena, edo laster Gipuzkoako beste herri batzuetan egingo dena, bilketa toki bakoitzera egokitu behar da. Hernanin laster hasiko dira eta uste dugu ondo egingo dutela; espero dezagun herritarrek behar bezala erantzutea, azken finean ez delako lan gehiago, ondo antolatzea baizik".

guk denak sortzen dugun arazoa da, eta bakoitzaren konpromisoa eta lana eskatzen du. Ezin dugu pentsatu Administrazioak konponduko duenik, Administrazioak baliabideak jar ditzake, baina herritarren lana izango da hau, sinadurak biltzea bezala.

### Lege proposamena egiteko Kataluniako legedia hartu duzue oinarri. Eredua al da zuentzako?

Eredu bat da dudarik gabe. Hala ere, oso lege interesgarria iruditzen zaigun arren, guretzat motza geratzen da. Katalunian 5.000 biztanletik gorako udalerriei behar-tzen zaie bilketa intentsiboa egite-ra, guk harantzago joan nahi dugu eta udalerrri guztiek egin behar dutela proposatzen dugu.

### Orduan, zer izango gara, frogarako saguak?

Ez. Proposatzen dugun sistema munduko toki askotan aplikatzen da: Italian, Bruselan... Baina horie-

tan legeak ez du esaten errausketarik ezin denik egin, udalerrri batek dena birziklatzen du eta ondokoak erraustegira botatzen ditu zaborrak... Hori alferrikako saiakera da.

### EAE osorako ekimena da zuena. Baina Gipuzkoako koordinadoratik sustatu izanak, ez ote die beste probintzietakoei pentsarazi "Gipuzkoako arazoa" dela honakoa?

Gai honen inguruko borrokarik ia ez dago Araban, eta Bizkaian lehen bazegoen, baina orain asko moteldu da. Azken finean familia daukagu, lana... ezin dugu urteetan borrokan aritu eta hori Administrazioak ondo daki; errausketaren alde daudenek denbora beti euren alde dute. Bestalde, Nafarroako jendea hurbildu zaigu, baina zoritxarrez, oraingo zatiketarekin nafarrek ezin dute sinatu.

Hauteskundeetan alderdi politiko zenbaiti eskatu zenieten euren jarrera definitzeko. Pasa dira hau-

### teskundeak, erantzunik jaso al duzue?

Ez, inolako erantzunik ez. Dena den, Parlamentuko mahaiko alderdiak ados zeuden horrelako ekimen legegile bat aurkeztearekin, horregatik onartu zuten. Orain eztabaidatzen eta posizionatzen hasi behar dugu edukiaren inguruan, ez bakarrik horrelako lege bat aurkeztea egokia ote den, baizik eta ea babes-tuko duten edo ez. Oraindik ez gara lan horretan hasi, luzapena eman digute eta lehenik ahalik eta sinadura gehien bildu behar dugu.

### Legea eztabaidatzen bada, aurrera aterako den esperantza duzue?

Espero dugu bertan agertzen diren gauza asko aurrera ateratzea. Ez dugu ahaztu behar EAE izan litekeela errausketarik gabeko erkidego bat, zaborraren hiru laurdenak birziklatuko dituen. Benetan lege hori ateratzen bada borroka hau irabazita daukagu eta gure osasunak eta ingurumenak eskertuko dute. ■



*Jaso euskal kultura egunero 10 albistetan*

*Harpidetza doan e-postaz*

*Dagoeneko 2.500 harpidedun*

*hari@*

*euskal kulturaren buletinak 10 urte*

**argia.com**